

* JOAN ZEN URTEAN IZANDAKO HILKETA ITZELAREN ANTZEKO ZERBAIT GERTATUKO ZEN BELDURRA BAZUEN POLIZIA

OTS sektako hamasei kideren gorpua aurkitu dituzte Frantziako Vercorsen

Eguzkiaren Tenploko Ordena (OTS) sektako 16 ustezko kideren gorpua kiskalita aurkitu zituzten jardarmek atzo goizean Vercorseko mendialdeko (Isere) baso batean. Hamasei lagun hauek desagertuta ziren duela astebetetik 1994ko urrian sekta honetako 53 kide hil ziren Suitzan eta Quebecen, eta antzeko gertakizunen beldurra bazen.

Allande Sokarros / Baiona

GERTAERA lazgarri bat izan zela baieztatu zen atzo goizeko 9.00etan, jandarmeriako buruzagi bat kazetariei informazio batzuk ematen ari zitzaizen unean bertan. Izan ere, berria irratian bidetz eman zioten: jandarmeriako helikoptero batetik ikusi zituzten sute baten aztarnak eta bertaratu ondoren gizaki gorpu kiskaliak zeudela ohartu ahal izan ziren. Aurkikuntza honen aurretik, jandarma multzo handia, 500 militar inguru, hedatu zen Saint-Pierre-de-Cherence herriaren inguruko baso-eskualdean bilaketa lanei ekiteko.

Erabaki hau ostiral arratsaldean hartu zuten, desagertuta zeuden pertsonen lau auto aurkitu baitzituzten lerratoki bateko aparkalekuan. Barruan inor ez zuten lau ibilgailu hauetatik hiruk Suitzako matrikula zeukaten eta batek Frantziakoa. Jandarmek ez zuten haietara inor hurbiltzen utzi, baina artezilaria batzuek jardun zuten auto hauetan, zeporik zutenentz ikusteko. Gorpu kiskaliak, berri, auto hauetatik zenbait kilometrotara zeuden, basoko agerrune batean, eta jandarmek emandako datuen arabera, biribilean etzanda zeuden, zangoak barrukaldera jarrita, izar baten itxura eginez.

Tokian bertan ez zen identifikaziorik egiteko modurik izan, gorpuzkinak ia erabat erreta baitzeuden; hala ere, 16 lagun, 13 heldu eta hiru haur, zirela jakinarazi zuten jandarmek. Hasieran 14 zirela zabaldu zen, baina kiskalitako gorpua ondo aztertu ondoren ikusi ziren 16 zirela biktimak. Erdiak frantziarrak ziren eta besteak, aldiz, Suitzakoak. Ustezko buruhiltzaia ikertzen ari den epaileak jakinarazi duenez, gorpuzkinen egoera dela eta, hainbat egun beharko dituzte hildakoko zeintzuk diren zehazteko.




Jandarme frantziarrak atzo, hildakoen autoak aurkitu zituzten Vercorseko basoan.

PATRICK GORDIN / AFP

Buruzagiak hildakoen artean zeuden • Beren etxeetatik ihes egindako hauen artean, Patrick Vuarnet 27 urteko frantziarra eta Edith haren ama zeuden. Frantziako eski txapelidun ospetsu baten seme honen izena aipatua izan zen dagoeneko, 1994ko urriaren 4 eta 5ean Quebecen eta Suitzan 53 lagunren gorpua aurkitu zituztenean. Ikaragarriko gertakari hauen berri urriaren 5ean zabaldu zen, Suitzako bi herritan, Cheryn eta Granges-sur-Salavanen, baserri batean eta bi mendi etxolatan gertatu ziren suteetan 48 pertsona hil zirela jakin zenean. Cheryko La Rochette baserrian 23 gorpu aurkitu ziren eta Granges-sur-Salvaneko etxolatan beste 25. Egun bat lehenago, berri, Quebecoko Morin Heights herriko txalet batean bost pertsonaren gorpua aurkitu zituz-

ten eta bertan ere sute bat izan zen.

Berehala egiaztatu zen ez zirela istripuak izan; bai, ordea, sekta bateko kideen suizidioak eta hilketak. Izan ere, Granges-sur-Salvanen kiskalita agertu ziren gorpuen artean Luc Jouret belgikarrarena eta Joseph Di Mambro frantziarrena zeuden, eta biok Ordre du Temple Solaire (OTS) sektako buruzagi gisa ziren ezagun. Sekta honek, Julien Origas frantziarrak 1968. urtean sortu zuen Ordre Renove du Temple talde esoterikoaren segida hartu zuen 1983an, Luc Jouret mediku homeopatikoa eta Joseph Di Mambro negozio-gizon susmagarriaren eskutik. Luc Jouretetik eman zion hedadura handia bere jite erakargarriagatik, baina sekta adituen arabera, Joseph Di Mambro zen benetako guru-a.



UBIDEKO UDALA IRAGARKIA

Udalbatzak, 1.995eko azaroaren 21ean agindako batzarrean, Bilbo Handiko Uren Partzuergoan eskubide osoz parte hartzeko eskaria hasieraz onartu zuen.

Agiria 30 egunetako epean jendaurrean da, doakionak Udalbatzak erabakiko duen behaketa eta oharrak aurkez ditzan, guzti hau Toki-Jaurpidearen Oinarriak Arauzotzeko Legearen 49. eta martxoaren 30eko, 3/95 Foru Arauaren, Bizkaiko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen, 32. atalek xedatutakoarekin bat etorritik.

Ubide, 1.995eko abenduak 1.

Esoterismoz jantzitako iruzur enpresa

EGUZKIAREN Tenploko Ordena sekta milenaritetan saikatuta dago, eta munduaren amaiera gertu dela sinestaz horren die kideei. Bukaera horretatik onik irteteko, sektako kide behar da erabat bihurtu, baina ez da edonor horrelakotzen. Izan ere, Luc Jouret eta Joseph di

Mambro buruzagiek nahiko pertsona aberatsen artean aukeratzen zituzten jarraitzaileak. Hauek, sektan sartzearekin batera, beren ondasunak uzten zituzten haren esku edo, hobeto esateko, haren gidariaren esku. Gisa honetan uler daiteke OTSren etxe ondasuna itzeleko bi-

hurtzea Suitzan, Frantziako, Quebecen eta Australian luxuzko hainbat egoitza eskuratuta.

Aberastasun metatze hau esoterismoz jantzita zegoen, eta, Rose Croix ordenaren ildoari jarraituz, OTSko kideek prest izan behar zuten Sirius planetar joateko, «nahitako

eta ohartuzko trantsizio baten bitartez». Definizio horren atzean suizidio kolektibo baten ospakizuna zegoen, eta urrats horren egiteko ezbaian zirenak hiltzea asmatua zen, iaz hil ziren 53 lagunren artean batzuk balaz hil baitzituzten.

Hilketa hau nolabait

azaldu nahi izan zuen sektak, 60ren bat agiri bidaltzeko hainbat komunikabide eta pertsonalitateri, hauen artean garai hartan Barne ministroa zen Charles Pasqua. Patrick Vuarnetek zuen lan hau bete, eta berarekin batera atxilotu zituzten bi polizia, beraien ere sektako kideak. *